**HERRIZAINGO SAILA**

LEHIAKETA, Iurretan, (Bizkaian) Ertzaintzako Talde Mugikorraren Baseko hezetasunak eta ur-filtrazioak konpontzeko obren lizitazioa egiteko dena. 214

LEHIAKETA, ibilgailuen tailerretarako makinaria eskuratzeko dena. 215

IRAGARKIA, balen kontrako txalekoak, 15 kanpoko eta 30 barruko, eskuratzeko kontratuaren esleipena jakinarazteko (esp.: S-448/99). 217

LEHIAKETA, Herrizaingo Sailaren menpeko zentroetan, mantenimendua, kontserbazioa eta konponketa txikiak egiteko obrak esleitzeko dena. 217

LEHIAKETA, Gernikako (Bizkaia) Ertzainetxearen urbanizazioa handitzeko obren lizitazioa egiteko dena. 219

**BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA**

EBAZPENA, Bizkaiko Garraio Partzuergoarena, Bizkaiko garraio publikoaren sarean «Creditrans» izeneko txartel bakarra abiatu, zabaldu eta sustatzeko kanpainarako laguntza teknikoaren kontratazioa, lehiaketa publikoaren bidezkoa, iragartzeko dena. 221

EBAZPENA, Bizkaiko Garraio Partzuergoarena, Bilboko hiri-trenaren 2. lineako San Inazio-Urbinaga Sektoreko korronte ahulen sistemetako lehiaketara aurkeztutako eskaintzak balioesteko laguntza teknikoa kontratatzeko lehiaketaren berri ematen duena. 223

**DEPARTAMENTO DE INTERIOR**

CONCURSO para la licitación de las obras de reparación de filtraciones de agua y humedades en la Base de la Brigada Móvil de la Ertzaintza en Iurreta (Bizkaia). 214

CONCURSO para el suministro de maquinaria para talleres del Parque Móvil. 215

ANUNCIO por el que se da publicidad a la adjudicación de «Adquisición de 15 chalecos balísticos externos y 30 internos». (Expte.S-448/99). 217

CONCURSO para la adjudicación de las obras de conservación, mantenimiento y reparación menor en los centros dependientes del Departamento de Interior. 217

CONCURSO para la licitación de las obras de ampliación de la urbanización de la Comisaría de la Ertzaintza en Gernika (Bizkaia). 219

**CONSORCIO DE TRANSPORTES DE BIZKAIA**

RESOLUCIÓN del Consorcio de Transportes de Bizkaia por la que se anuncia la contratación por el Procedimiento de Concurso Público de la Asistencia Técnica para la campaña de lanzamiento, difusión y promoción del billete único ‘Creditrans’. 221

RESOLUCIÓN del Consorcio de Transportes de Bizkaia por la que se anuncia la contratación del Concurso de la Asistencia Técnica para la Evaluación de Ofertas del concurso de los Sistemas de Corrientes Débiles del Sector San Inazio-Urbinaga de la Línea 2 del Ferrocarril Metropolitano de Bilbao». 223

# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-28

439/1999 DEKRETUA, abenduaren 21ekoa. Honen bidez arautzen dira itunpeko ikastetxe pribatuentzako diru-laguntzak, ikastetxe horietan ordainketa eskuordetuaren menpeko langileek erretiro partziala hartuz gero, langile horiei lanaldi partzialeko lankontratuak egiteko.

ELA, UGT, CCOO eta LAB sindikatuen eta CONFEBASK enpresarioen elkargoaren artean izandako elkarrizketa eta eztabaiden ondorioz, «Enpleguari buruzko hitzarmena» izenpetu zen 1999ko urtarrilaren 15ean, eta «Ordezkapenei eta plantilen berrikuntzari buruzko lanbide arteko akordioa» ere hitzarmen horren barruan dago jasota; izan ere hitzarmena izenpetzeko

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-28

DECRETO 439/1999, de 21 de diciembre, por el que se regulan ayudas destinadas a los centros docentes privados concertados para la contratación a tiempo parcial del personal docente afectado por el pago delegado que se acoja al sistema de jubilación parcial.

Dentro del proceso de diálogo y debate que las Centrales Sindicales ELA, UGT, CC.OO. y LAB y la Asociación Empresarial CONFEBASK llevaron a cabo, se suscribió el 15 de enero de 1999 el denominado «Acuerdo sobre el empleo». Dentro de dicho Acuerdo sobre el empleo se inserta también el denominado Acuerdo interprofesional sobre sustitución y renovación

aktan jasotakoaren arabera, «hitzarmen honek alde biak behartzen ditu hitzartutakoa betetzera, eta Administrazio Publikoetara ere bidaliko da beharrezkoak diren hitzarmenak izenpetzeko, eta, horrela, bertan jasotakoa gauzatu ahal izateko».

Bestalde, Langileen Estatutuko 12.6 artikuluan jasotako txanda-kontratuek jendea lan munduan sartzeko aukerak ematen dituzte langabezia eta lanaren ezegonkortasuna nagusi diren gure gizartean. Izan ere, kontratu mota horrek erretiro partzialak eskatzeko aukera emateaz gain, langabezian dauden pertsonak kontratatzeko aukera ere ematen baitu, egun osoz eta kontratu mugagabeen bidez.

Horregatik, Eusko Jaurlaritzak ekainaren 29ko 267/1999 Dekretuaren bidez berretsi zuen Lan Harremanetarako Kontseiluan lortutako akordioa, bereziki ordezkapenei eta plantilen berrikuntzari buruz hitzartutakoa.

Horrez gain, Hezkuntza-eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoan jasotako ordainketa eskuordetuen sistemak —Itunpeko ikastetxeei buruz diharduen IV. tituluko 49.5 artikulua— berrikuntza nabarmena ekarri zuen hezkuntza sistemara; izan ere sistema horren kariaz, Administrazioak ordaindu behar ditu, zuzenean eta ikastetxearen entitate titularraren izenean, irakasleriaren lansariak.

Era berean, Autonomia Estatutuaren 16. artikuluak Euskal Autonomia Erkidegoari aitortzen dion eskumena erabiliz eta goiko lerroaldean aipatutako Lege Organikoaren lehen xedapen gehigarrian jasotakoa ezarriz, onartu zen Hezkuntza-itunen Erregelamendua onartzen duen irailaren 8ko 293/1987 Dekretua. Dekretu horren hirugarren xedapen iragankorrean jasotakoak Gobernuari aitortu zion itunpeko ikastetxeetan ordainketa eskuordetuak egiteko sistema ezartzeko ahalmena.

Euskal Herriko irakaskuntza pribatuko sektorearen baitako hitzarmen kolektibo bietako alderdi sozial eta ekonomikoen ordezkariek ere hainbat akordio izenpetu dituzte «Ordezkapenei eta plantilen berrikuntzei buruzko Lanbide arteko Akordioa» bideratu ahal izateko eta ikastetxe horietako langileria guztiari ezarri ahal izateko.

Hori guztia dela eta, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak lagundu egin nahi die ekainaren 29ko 267/1999 Dekretuan Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza pribatuko sektoreari laguntzeko ezarri ziren ekimenei. Beraz, deialdi honen asmoa da itunpeko ikastetxe pribatuen kontura diren honako langileei dagozkien lansariak diruz laguntzea: 60 urtetik gorako langileena edo Gizarte Segurantzaren erretiroko pentsio kontributiboa jaso ahal izateko gehienez ere 5 urte falta dituzten langileena, baldin eta ordainketa eskuordetuen menpe egonik, erretiro partziala —lanaldiaren %77— eskatzen badute eta lanaldiaren gainontzeko %23arentzako lanaldi partzialeko lan-kontratua eskatzen badute. Era honetako diru-laguntza jaso ahal iza-

de plantillas que, como en el propio acta de suscripción del Acuerdo se indica, «constituye un acuerdo de carácter obligacional alcanzado por las partes firmantes que trasladará a las Administraciones Públicas a fin de concertar con ellas lo necesario para la eficacia de lo suscrito».

La figura del contrato de relevo, previsto en el artículo 12.6 del Estatuto de los Trabajadores, permite, además, una transición gradual hacia la jubilación y, en la medida en que se acompañe de la contratación por trabajo indefinido a jornada completa de una persona desempleada, abre nuevas perspectivas de inserción laboral en una sociedad que tiene en el paro y la inestabilidad laboral dos de sus mayores problemas.

Por ello, el Gobierno Vasco, mediante el Decreto 267/1999, de 29 de junio, refrendó el acuerdo alcanzado en el Consejo de Relaciones Laborales y especialmente en lo referente a la sustitución y renovación de plantillas.

Por otro lado, la Ley Orgánica 8/1985, de 3 de julio, reguladora del derecho a la educación, introdujo una importante novedad en el sistema educativo al establecer en su artículo 49.5, enmarcado en el Título IV - De los centros concertados -, el sistema de pago delegado, definiéndolo como aquél en que los salarios del personal docente son abonados directamente por la Administración al profesorado en nombre de la entidad titular del centro.

En uso de la competencia reconocida en la Comunidad Autónoma del País Vasco por el artículo 16 de su Estatuto de Autonomía, y en aplicación de lo establecido en la Disposición Adicional Primera de la Ley Orgánica antes citada, se aprobó el Decreto 293/1987, de 8 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento de Conciertos Educativos, cuya Disposición Transitoria Tercera faculta al Gobierno a la implantación del sistema de pago delegado en los centros concertados.

Dentro del sector de enseñanza privada del País Vasco, las representaciones correspondientes a las partes sociales y económicas de los dos convenios colectivos sectoriales existentes en dicho ámbito, han firmado asimismo acuerdos para encauzar este Acuerdo Interprofesional sobre «Sustitución y Renovación de plantillas» para todo el personal de dichos centros.

Para colaborar con las iniciativas del Decreto 267/1999, de 29 de junio, dentro del sector de enseñanza privada de la Comunidad Autónoma del País, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación pretende, con esta convocatoria, subvencionar a los centros privados concertados el importe de los salarios a cargo de dichos centros de aquel personal docente, afectado por el pago delegado, que se retire de la actividad laboral, siempre que sea mayor de 60 años, o bien le falte como máximo cinco para el cumplimiento de la edad exigida para causar derecho a la pensión contributiva de jubilación de la Seguridad Social, se acoja a una jubilación parcial 77% de su jornada, y suscriban un contrato a tiempo parcial por el 23% restante.

teko, enpresak, ezinbestez eta aldi berean, langabetu moduan izena emanda dagoen irakasle bat hartu beharko du txanda-kontratuarekin eta lanaldi osorako. Horrez gain, hasierako konpromisoa era jaso beharko du, hau da, txanda-kontratua bukatzen denean, irakasleari kontratu mugagabea egingo zaiola.

Neurri honen asmoa da hezkuntza sistemaren kalitatea hobetzen jarraitzea, horretarako, LOGSE Legearen ezarpenari egokitutako prestakuntza eta hizkuntza gaitasuna duten langileak hartuz eta gizarteak eskatzen duen eskolaratze elebidunaren beharretara moldatuz.

Horren guztiaren indarrez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak proposaturik, eta 1999ko abenduaren 21eko Jaurlaritzaren Kontseiluak aldez aurretik eztabaidatu eta onarturik, honakoa

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Helburua.

EAEko itunpeko ikastetxe pribatuek haien konturako irakasleriarekin hitzartzen dituzten lanaldi partzialeko lan-kontratuei emango zaizkie dekretu honetan araututako diru-laguntzak, baldin eta irakasleriak erretiro partziala eskatzen badu, 3. artikuluan jasotako baldintzei jarraituz.

*2. artikulua.–* Onuradunak eta eskakizunak.

1.– Dekretu honetan jasotako diru-laguntzen onuradunak izango dira EAEko itunpeko ikastetxe pribatu guztiak, baldin eta lanaldi partzialeko lan-kontratuak izenpetzen badituzte erretiro partziala hartu nahi duten irakasleekin.

2.– Aurreko paragrafoan jasotakoa gertatuz gero, hau da, ikastetxe bat diru-laguntzen onuraduna izateko, ikastetxean erretiro partzial bat eta txanda-kontratu bat egin beharko dira honako baldintzak kontuan hartuta:

a) Itunpeko ikastetxe pribatu bateko irakaslea izatea, lanaldi osoko kontratua izatea eta ordainketa eskuordetuan jasota egotea.

b) 60 urte baino gehiago izatea edo Gizarte Segurantzaren erretiroko pentsio kontributiboa jaso ahal izateko gehienez ere 5 urte falta izatea.

c) Langileak erretiro partziala eskatzea —lanaldiaren %77— eta lanaldiaren gainontzeko %23arentzako lanaldi partzialeko lan-kontratua eskatzea.

d) Aldi berean lanaldi osoko txanda-kontratu bat izenpetzea langabetu moduan izena emanda dagoen irakasle batekin. Txanda-kontratuak talde eta lanbide-maila bereko gainontzeko irakasleek lanaldi osorako dituzten baldintza berberak izango ditu. Horiez gain, eta hasieran hartutako konpromisoari jarraituz, txanda-kontratua bukatutakoan kontratua mugagabea izango dela jasoko da, eta une horretan kontratuaren kopia bidali beharko da Baliabide Zuzendaritzara.

Para acogerse a dichas ayudas, la empresa también deberá concertar simultáneamente un contrato de relevo con un docente inscrito como desempleado, a jornada completa, recogiéndose el compromiso inicial de que, a su finalización, se convertirá en contrato por tiempo indefinido.

Con esta medida se pretende avanzar hacia una mejora en la calidad del sistema educativo, respondiendo a la demanda de personal con perfiles académicos y lingüísticos adecuados a la implantación de la LOGSE y a las necesidades de escolarización bilingüe que demanda la sociedad.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 21 de diciembre de 1999,

DISPONGO:

*Artículo 1.–*Objeto.

Serán subvencionables al amparo del presente Decreto, los contratos a tiempo parcial que se concierten por los centros docentes privados concertados de la C.A.P.V. con su personal docente, por cuenta ajena, cuando éste se acoja al sistema de la jubilación parcial, con las condiciones que se especifican en el artículo 3.

*Artículo 2.–*Beneficiarios y requisitos.

1.– Serán beneficiarios de las ayudas establecidas en el presente Decreto aquellos centros docentes privados concertados de la CAPV que formalicen contratos a tiempo parcial con trabajadores/as docentes que quieran acogerse al sistema de la jubilación parcial

2.– Para el supuesto a que se refiere el apartado anterior, es decir, para tener la condición de centro beneficiario de las ayudas, deberá producirse en el centro una jubilación parcial y su correspondiente contrato de relevo en las condiciones siguientes:

a) Deberá ser personal docente de centros privados concertados, contratado a jornada completa y que esté incluido en pago delegado.

b) Deberá de tener más de 60 años, o les falte como máximo cinco para el cumplimiento de la edad exigida para causar derecho a la pensión contributiva de jubilación de la Seguridad Social.

c) Que dicho trabajador/a se acoja a una jubilación parcial del 77% de su jornada, y suscriba un contrato a tiempo parcial por el 23% restante.

d) Que exista simultáneamente un contrato de relevo a jornada completa con un trabajador/a inscrito/a como desempleado/a, en las mismas condiciones laborales que la empresa aplique al personal del mismo grupo y categoría profesional en régimen de jornada completa recogiéndose el compromiso inicial de que, a su finalización, se convertirá en contrato por tiempo indefinido, momento en el cual deberá remitirse copia del mismo a la Dirección de Recursos.

e) Ikastetxe edo enpresa eskatzailea enpleguari laguntzeko neurriak arautzen dituen ekainaren 29ko 267/99 Dekretuan jasotako laguntzen onuraduna izatea. Dekretu hori uztailaren 16ko EHAAn argitaratu zen.

*3. artikulua.*– Diru-laguntzaren iraupena eta zenbatekoa.

1.– Diru-laguntzaren zenbatekoa lansari osoari dagokiona izango da, Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kotizazioak barne, lanaldi partzialeko lan-kontratuaren kasuan (%23), bai eta horri dagozkion eguneratzeak ere. Eguneratzeak ezin izango du gainditu ezargarria den lan-hitzarmenaren %23.

2.– Diru-laguntzak kontratua amaitu arte iraungo du: erretiratuak 65 urte bete arte.

3.– Langileak ez badaude ordainketa eskuordetuen sisteman sartuta %100ean, diru-laguntza ere proportzionala izango da.

*4. artikulua.*– Eskabideak aurkezteko era eta epea.

1.– Enpresa kontratugileak egin beharko du eskabidea. Horretarako, eskabide-eredu ofiziala erabiliko du eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Baliabide Zuzendaritzan aurkeztuko du. Edozelan ere, 4/1999 Legeak aldatu zuen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitakoa izango da ezargarria.

2.– Diru-laguntza eskabideak aurkezteko epea bukatuko da kontratu biak izenpetu eta bi hilabeteko epean.

3.– Eskabideak behar bezala beteko dira, eskatutako datu guztiak jasoz, eta eskabidearekin batera aurkeztu beharko dira dekretu honetan ezarritako agiri guztiak.

4.– Publikotasun-printzipioa betetzeko asmoz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak urtero egingo du dekretu honetan jasotako laguntzak emateko deialdia, eta bertan adieraziko du dagokion aurrekontu-dotazioa.

*5. artikulua.*– Derrigorrez aurkeztu beharreko agiriak.

Diru-laguntza eskabideak behar bezala bete beharko dira, eta eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

• Erretiro partziala onartu dela egiaztatzen duen agiria.

• Enplegu bulegoan erregistratutako lanaldi partzialeko lan-kontratuaren eta txanda-kontratuaren kopiak, bai eta txanda-kontratua duten langileak langile finko bihurtzeko konpromisoa adierazten duen agiria ere.

e) Y que el centro o la empresa solicitante sea beneficiario/a de las ayudas contempladas en el Decreto 267/99, de 29 de junio, por el que se regulan medidas de apoyo al empleo, publicado en el BOPV de 16 de julio de 1999.

*Artículo 3.*– Duración y cuantía de la subvención.

1.– La cuantía de la subvención será el importe total de la retribución, incluidas las cotizaciones a la Seguridad Social, para el contrato a tiempo parcial (23%), con sus actualizaciones correspondientes, que en ningún caso será superior al 23% del convenio colectivo que le sea de aplicación.

2.– La duración de la subvención se extenderá hasta la expiración del contrato, produciéndose ésta cuando el jubilado/a alcance los 65 años de edad.

3.– En el caso de personal no incluido al 100% en pago delegado, la subvención será proporcional a su dedicación en el mismo.

*Artículo 4.*–Presentación de solicitudes: forma y plazo.

1.– La empresa contratante, solicitará la subvención mediante instancia ajustada a modelo oficial y la presentará ante la Dirección de Recursos del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. En todo caso será de aplicación lo previsto en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999.

2.– El plazo de presentación de las solicitudes de subvención finalizará transcurridos dos meses desde la fecha en que se efectuaron las contrataciones respectivas.

3.– Las solicitudes se presentarán debidamente cumplimentadas con todos los datos requeridos y deberán venir acompañadas necesariamente de la documentación que se establece en este Decreto.

4.– A los efectos de dar cumplimiento al principio de publicidad, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, realizará anualmente la pertinente convocatoria para dar a conocer las ayudas previstas en este Decreto, con expresión de la dotación presupuestaria correspondiente.

*Artículo 5.*– Documentación preceptiva.

Las solicitudes de subvención deberán cumplimentarse en todos sus términos, y deberán venir acompañadas necesariamente de la siguiente documentación.

• Documento acreditativo de la concesión de jubilación parcial.

• Copia del contrato de trabajo a tiempo parcial y del contrato de relevo, registrados en la Oficina de Empleo, así como del documento que recoja el compromiso de convertir en fijo el personal con contrato de relevo.

• Txanda-kontratuarekin hartutako langilearen Gizarte Segurantzako alta-agiriaren kopia.

• Kontratatutako langilearen enplegu-eskatzaile txartelaren kopia, eta horrelakorik izan ezik, txanda-kontratua izenpetu zenean langile hori langabetu moduan izena emanda zegoela egiaztatzen duen egiaztagiria, Enplegu-bulegoak luzatua.

• Txanda-kontratuarekin hartutako langilearen NANaren kopia.

• Ekainaren 29ko 267/99 Dekretuaren babesean egindako eskabidearen kopia eta, horrelakorik balego, eskabideari egindako ebazpenaren kopia ere bai.

• Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren Altxortegi Orokorraren Lurralde Zuzendaritzaren egiaztagiri eguneratua, eta bertan adierazi beharko da enpresa eskatzaileak egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Edozelan ere, eskabidea aurkeztu ahal izateko, egiaztagiri horren ordez, egiaztagiria eskatu dela ziurtatzen duen agiria aurkeztu ahal izango da.

Enpresa batek ordainketak atzeratzeko eskabidea egina badu, ordainketetan egunean dagoela ulertuko da, baldin eta atzerapena agiri bidez egiaztatzen badu.

• Enplegua sortu eta finkoa egiteagatik jasotako diru-laguntza eta hobariei buruzko zinpeko aitorpena, eta hala badagokio, baita artean ebatzi gabe dauden laguntza eskabideak ere.

*6. artikulua.*– Eskabideen zuzenketak.

Eskabideak ez badira behar bezala beteta aurkezten edo eskabidearekin batera ez badira aurreko artikuluan jasotako agiriak aurkezten, hamar eguneko epea emango zaio enpresari eskabidea behar bezala betetzeko edo falta diren agiriak aurkezteko. Horrez gain, enpresari adieraziko zaio eskatutakoa betetzen ez badu, eskabidea bertan behera uzten dela ulertuko dela eta Administrazioak ezinbestez ebatzi beharko duela eskabidea, bai eta ebazpena jakinarazi ere, hala baitago jasota Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 eta 42.1 artikuluetan.

*7. artikulua.*– Eskabideen kudeaketa eta ebazpena: eskumena, epea eta errekurtsoak.

1.– Dekretu honek arautzen dituen laguntzen kudeaketarako organo eskumenduna Baliabide Zuzendaritza izango da.

2.– Baliabide zuzendariak berariaz egindako ebazpenak onartuko ditu eta, hala badagokio, ukatuko ditu dekretu honek arautzen dituen eskabideak. Eskabideak jaso ahala ebatziko dira.

3.– Ebazpenak ez du administrazio-bidea agortzen, eta interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute haren kontra Administrazio eta Zerbitzuen

• Copia del parte de alta en la Seguridad Social de la persona contratada con el contrato de relevo.

• Copia de la tarjeta de demandante de empleo de la persona contratada o, en su defecto, certificado expedido por la correspondiente Oficina de Empleo que acredite su inscripción como desempleada en la fecha que se firme el contrato de relevo.

• Copia del DNI de la persona contratada con contrato de relevo.

• Copia de la solicitud y en su caso, resolución correspondiente a la ayuda solicitada al amparo del Decreto 267/99, de 29 de junio.

• Certificado, actualizado de la Hacienda Foral y de la Dirección Provincial de la Tesorería General de la Seguridad Social que acredite que la empresa solicitante de la subvención se encuentra al corriente en el pago de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social.

Únicamente a los efectos de presentación de la solicitud dicha certificación podrá sustituirse por el escrito, debidamente sellado, en el que conste su requerimiento.

Se entenderá en situación regular de pagos, la empresa que hubiese obtenido un aplazamiento y lo acredite documentalmente respecto de la deuda aplazada.

• Declaración jurada de las subvenciones y bonificaciones recibidas con motivo de la creación y fijeza de empleo y en su caso, las solicitudes de ayuda pendiente de resolución.

*Artículo 6.*– Subsanación de la solicitud.

Si las solicitudes de subvención no vinieran cumplimentadas en todos sus términos, o no fueran acompañadas de la documentación relacionada en el artículo anterior, se requerirá a la empresa para que en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, estando obligada la Administración a dictar resolución expresa sobre esa solicitud, así como a notificarlo, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 71. 1 y 42. 1. de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 7.*– Gestión, Resolución: competencia, plazo y Recursos.

1.– El órgano competente para la gestión de las ayudas reguladas en el presente Decreto, será la Dirección de Recursos.

2.– La concesión y, en su caso, la denegación de las ayudas reguladas en el presente Decreto se realizará mediante Resolución expresa e individualizada del Director/a de Recursos. Este proceso se efectuará de forma continuada según el orden de recepción de solicitudes.

3.– Dicha Resolución no agota la vía administrativa y, contra la misma, las personas interesadas podrán interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero/a de

sailburuordearen aurrean, hala baitago jasota 4/1999 Legeak aldatu zuen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta ondokoetan.

4.– Dekretu honen babesean eskatutako eskabideak ebazteko eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da. Epe hori igarotzen bada eta ez bada inolako jakinarazpenik jaso, eskabidea ez dela onartu ulertu beharko da. Eta horrek ez dio kalterik egingo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak Administrazioari eskabideak espreski ebazteko ezartzen dion betebeharrari.

5.– Publikotasun-printzipioa betetzeko asmoz, eskabide onartuen kasuan egin behar diren bana-banako jakinarazpenei kalterik egin gabe, Baliabide zuzendariaren ebazpena argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta honakoak jasoko ditu: zeintzuk enpresa izan diren dekretu honetan ezarritako diru-laguntzen onuradunak, enpresek jaso duten zenbatekoa eta egon diren aldaketak, halakorik egon bada.

*8. artikulua.*– Frogagiriak eta diru-laguntza ordaintzeko era.

1.– Dekretu honen babespean onartutako diru-laguntzak urtero ordainduko dira honako bi epe hauetan: guztira ordaindu behar den zenbatekoaren %50 ekitaldi horretako maiatzean ordainduko da, eta gainontzeko %50 azaroan ordainduko da. Bestalde, atzerapenak ere azaroan ordainduko dira.

2.– Ordainketak egin aurretik honako agiriak aurkeztu behar izango dira ezinbestez:

• Lanaldi partzialeko lan-kontratuen eta txanda-kontratuen nominen kopia, eta txanda-kontraturik egon ezik, kontratu mugagabeena.

• Goiko lerroaldean jasotako kontratuei buruzko Gizarte Segurantzaren kotizazio-agirien kopia (TC-1 eta TC-2 ereduak).

• Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren Lurralde Zuzendaritzaren egiaztagiri eguneratua, eta bertan adierazi beharko da enpresa eskatzaileak egunean dituela erakunde horiekiko betebeharrak.

3.– Artikulu honetako lehen paragrafoan jasotako lehen ordainketa egingo da laguntza onartzen duen ebazpena egin ondoren eta aurreko paragrafoan zerrendatutako agiriak jaso ondoren.

*9. artikulua.*– Bestelako diru-laguntza edo laguntzekiko bateragarritasuna.

1.– Diru-laguntza hauek bateragarriak izango dira bestelako diru-laguntza edo laguntzekiko, eta berdin dio laguntza horiek fondo publikoetatik zein pribatuetatik etorri.

Administración y Servicios, conforme a los artículos 114 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999.

4.– El plazo máximo para resolver y notificar las solicitudes formuladas al amparo del presente Decreto será de seis meses. Transcurrido el mismo, sin que haya mediado notificación de resolución alguna, se podrá entender desestimada la petición de subvención. Sin perjuicio de la obligación que la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común impone a la Administración de resolver expresamente.

5.– A fin de dar cumplimiento al principio de publicidad, y sin perjuicio de la notificación expresa e individualizada de las Resoluciones de concesión, mediante Resolución del Director/a de Recursos se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco la relación de las empresas que hayan resultado beneficiarias de las subvenciones concedidas al amparo de la presente disposición, con expresión de las cuantías percibidas, así como las modificaciones que en su caso se produzcan.

*Artículo 8.*– Forma de pago y justificación de la subvención.

1.– El abono de las subvenciones concedidas al amparo del presente Decreto se realizarán a razón de dos pagos anuales: el 50% de la cantidad total a devengar en el ejercicio económico de que se trate se efectuará en el mes de mayo, y el otro 50% restante se realizará en el mes de noviembre, y en él se incluirán todas las cantidades pendientes.

2.– Para la realización de los pagos será necesaria la previa presentación de la siguiente documentación:

• Copia de las nóminas correspondientes a los contratos celebrados a tiempo parcial y de los contratos de relevo (o en su caso de los contratos por tiempo indefinido).

• Copia de los documentos de cotización a la Seguridad Social (modelos TC-1 y TC-2) correspondientes a los contratos señalados en el párrafo anterior.

• Certificado actualizado de la Hacienda Foral y de la Dirección Provincial de la Seguridad Social que acrediten el cumplimiento de la entidad contratante de las obligaciones contraidas con dichos Organismo.

3.– El primero de los abonos señalados en el primer párrafo de este artículo se realizará tras la resolución de la concesión de la ayuda y una vez recibida la documentación relacionada en el párrafo anterior.

*Artículo 9.*–Compatibilidad con otras subvenciones o ayudas.

1.– La concesión de estas ayudas será compatible con la obtención de cualquier otro tipo de subvención o ayudas, ya provenga la misma de fondos públicos o privados.

2.– Dekretu honetako 2.2 artikuluan ezarritako gertaeraren ondorioz, hau da, erretiro partzialeko kontratuak eta txanda-kontratuak direla eta, onuradunak bestelako laguntzarik jasotzen badu, laguntza horien zenbatekoa kendu egingo da dekretu honetan ezarritako zenbatekotik.

*10. artikulua.*– Zerga, lan eta Gizarte Segurantza betebeharrak betetzea.

Dekretu honetan jasotako laguntzak onartu eta ordaindu ahal izateko enpresek ezinbestez aurkeztu beharko dituzte zerga-betebeharrekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharren egiaztagiriak, horretarako Ogasun eta Herri Administrazio Sailak eta lan arloan indarrean dagoen legediak ezarritakoa betez.

*11. artikulua.*– Enpresa onuradunen betebeharrak.

Enpresa onuradunek ezinbestez bete beharko dituzte zeregin hauek:

1.– Diruz lagundutako jardueraren izaera edo helburua nabarmen aldatzen duen gertakarien berri ematea, bai eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoari zein Herri Kontuen Euskal Epaitegiari laguntzea entitate horiek diru-laguntzen erabilerari buruz egiten dituzten fiskalizazio lanetan.

2.– Diru-laguntzen helburua eta ezarpena bermatzea ondoko dekretuan jasotako konpromisozko bermeen bidez: 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten Izaiki Laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena.

*12. artikulua.*– Enpresa onuradunek betebeharrak ez betetzea.

Enpresa onuradunak ez badu deialdiaren ebazpenean, dekretu honetan, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartu zuen Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bateginaren 53.1 artikuluan eta gainontzeko araudi ezargarrietan jasotako edozein betebehar betetzen, Baliabide zuzendariak ebazpen bidez adieraziko du, hala badagokio, ordaintzeke dauden kopuruak jasotzeko eskubidea galdu dela eta ordura arte jasotako kopuruak Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar zaizkiola ezinbestez, bai eta dagozkion interes legalak ere. Eta guzti horrek ez die kalterik egingo abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan jasotako bidezkoak diren bestelako jarduerei. Aipatutako kopuru horiek sarrera publikotzat hartuko dira dagozkien ondorioetarako.

2.– En el supuesto que el beneficiario percibiera alguna otra ayuda por la materialización de la operación descrita en el Art.º 2.2 del presente Decreto, en función de los contratos de jubilación parcial o de los contratos de relevo, el importe de las mismas minorará la cuantía establecida en el presente Decreto.

*Artículo 10.*– Cumplimiento de obligaciones tributarias, laborales y de Seguridad Social.

La concesión y, en su caso, el pago de ayudas previstas en el presente Decreto quedan condicionadas a la acreditación por parte de las empresas solicitantes del cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, de conformidad con lo que al efecto disponga el Departamento de Hacienda y Administración Pública, así como al cumplimiento de la legalidad vigente en materia laboral.

*Artículo 11.*– Obligaciones de las empresas beneficiarias.

Las empresas beneficiarias de las ayudas quedan obligadas a:

1.– Comunicar cualquier eventualidad que altere sustancialmente el objeto o naturaleza de la actuación subvencionada, así como a colaborar con la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas.

2.– Garantizar el destino y aplicación de las ayudas mediante garantías relacionadas, conforme a lo previsto en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y se establezcan los requisitos, régimen y obligaciones de las Entidades colaboradoras que participen en su gestión.

*Artículo 12.*– Incumplimientos.

En el supuesto de que la empresa beneficiaria de la subvención incumpliere cualquiera de las condiciones establecidas en la Resolución de concesión, del presente Decreto, así como en los supuestos contemplados en el artículo 53.1 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco (aprobado por el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre) y en demás normas de aplicación, el Director/a de Recursos, mediante la correspondiente Resolución, declarará, en su caso, la pérdida del derecho a la percepción de las cantidades pendientes y la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades que hubiera percibido, así como los intereses legales que correspondan, sin perjuicio de las demás acciones que procedan, de conformidad con el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre. Las referidas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a los efectos legales pertinentes.

*13. artikulua.–* Diru-baliabideak.

1.– Dekretu honetan ezarritako diru-baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan helburu horietarako ezarrita dauden aurrekontu-kredituetatik etorriko dira. Aurrekontu-ekitaldi berean ematen diren diru-laguntzek ezin izango dute gainditu bertan jasotako kontsignazioa edo kontsignazioa eguneratzearen ondorioa den zenbatekoa, baldin eta indarrean dagoen legediaren araberako aurrekontu-aldaketak onartzen badira. Diru-laguntzak ordainketa-kredituei eta konpromisozko kredituei egotziko zaizkie, hartara ordainketa zatikatuei aurre egin ahal izateko, beti ere ekitaldi bakoitzean ezarri behar den itxiera-araudiari kalterik egin gabe.

2.– Diru-laguntza ukatu egingo da, baldin eta diru-laguntza egotzi behar zaion aurrekontuak ez badu ordainketarik egiteko nahikoa krediturik, eta, beraz, baliogabetu egingo da dekretu hau, bai eta, beste diru-laguntza batzuk eman ahal izateko, dekretu honen ondorioz onartu izan den bestelako araudia ere. Guzti horregatik, eta dekretu hau indarrean dagoen bitartean, ekitaldi ekonomiko batean diru-laguntzak eman ahal izateko kontsignatuta dagoen kreditua bukatzen bada, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak administrazio-ebazpena egingo du kreditua zein datatan bukatu den adieraziz. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

3.– Ekitaldi bateko aurrekontu-kredituei egotzi ahal izango zaizkie aurreko ekitaldietan aurkeztutako jarduerei buruzko eskabide berriak, honako baldintzak betetzen badituzte: batetik, jarduera horiek diruz laguntzeko modukoak izatea; bestetik, diru-laguntzak jaso ahal izateko dekretu honetan ezarritako baldintzak betetzea; eta, azkenik, eskabideak ezin izan badira ordaindu eskabidea aurkeztu zen ekitaldiko aurrekontu-kredituekin.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

1.– 2000 urtean Dekretu honen ezarpen eremuan emango diren laguntzak finantzatzeko 1.380.810.000 pezetako (8.298.835,24 euro) zenbatekoa ezarri da.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Nagusien kargutan egiteko den gastu espedientearen aurreratutako tramitazioa araupetzen duen Ekonomia eta Herriogasun Sailaren 1985ko azaroaren 12ko Aginduan ezarritakoa betez, 2000 urterako diru-laguntzen deialdia ebatzi ahal izateko, kontuan hartu behar izango da ekitaldi horretako EAEko Aurrekontu Orokorretan ordainketak egiteko nahikoa kreditu dagoen.

3.– 1999ko irailaren 1ean hasi eta dekretu hau indarrean sartu bitartean egiten diren kontratuak diruz lagundu ahal izango dira 2000ko urtarriletik aurrera,

*Artículo 13.–* Recursos Económicos.

1.– Los recursos económicos destinados al cumplimiento del presente Decreto procederán de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. El volumen total de las ayudas a conceder dentro de un ejercicio presupuestario no superará la citada consignación o la que resulte de su actualización, en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente. Las ayudas se imputarán a los créditos de pago y de compromiso correspondientes a fin de hacer frente a los pagos fraccionados, todo ello sin perjuicio de la normativa sobre cierre presupuestario que resulte aplicable en el ejercicio.

2.– Se denegará la concesión de las ayudas en el caso en que el Presupuesto al que deban imputarse las citadas ayudas carezca de crédito adecuado y suficiente para la finalidad pretendida, suspendiéndose la eficacia del presente Decreto y de sus normas de desarrollo en lo relativo a la concesión de nuevas ayudas. Por todo ello, mientras se encuentre vigente el presente Decreto si en un ejercicio económico se agota el crédito consignado para la concesión de las ayudas, al objeto de dar publicidad a esta circunstancia por el Viceconsejero/a de Administración y Servicios se emitirá Resolución administrativa en la que se señalará la fecha en que se ha producido el agotamiento del citado crédito, publicándose la misma en el Boletín Oficial del País Vasco.

3.– Se podrán imputar a los créditos presupuestarios de un ejercicio las nuevas solicitudes de ayudas relativas a actuaciones subvencionables presentadas en los ejercicios anteriores, siempre que las citadas actuaciones subvencionables cumplan con los requisitos establecidos en el presente Decreto para la obtención de ayudas y que, además, no hayan podido ser atendidas con los créditos presupuestarios del ejercicio en el que se iniciaron.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA ÚNICA

1.– Para la financiación de las ayudas que se concedan en el año 2000, en el ámbito del presente Decreto, se destinará la cantidad de 1.380.810.000 (8.298.835,24 euros ).

2.– De conformidad con lo establecido en la Orden de 12 de noviembre de 1985, del Departamento de Economía y Hacienda, por la que se regula la tramitación anticipada de expedientes de gasto con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la resolución de concesión de las ayudas convocadas para el año 2000 queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en los Presupuestos Generales de la CAPV para dicho ejercicio.

3.– Las contrataciones, que, se hubiesen realizado entre el 1 de septiembre de 1999 y la entrada en vigor de este Decreto, podrán ser subvencionadas a partir de ene-

eta kontratuak izenpetu ziren datara arteko atzeraeragineko ondorioak izango dituzte, baldin eta eskabidea 2000ko otsailaren 1a baino lehen aurkezten bada.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Erregimen supletorioa.

Administrazio Prozeduraren arloan dekretu honek jaso ez duen guztiari Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean jasotakoa ezarriko zaio.

*Bigarrena.*– Dekretuaren garapena.

Dekretu hau garatzeko eta gauzatzeko beharrezkoak izango diren xedapenak emateko ahalmena ematen zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari.

*Hirugarrena.*– Indarrean sartzea.

Dekretu hau indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean.

*Laugarrena.*– Errekurtsoak.

Dekretu honek administrazio-bidea bukatzen du. Beraz, interesa dutenek dekretuaren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako bi hilabeteko epea izango dute, dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, hala agintzen baitute Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1b) eta 46.1 artikuluek.

Vitoria-Gasteizen, 1999ko abenduaren 21ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

ro del 2000 con efectos retroactivos a la fecha en que se formalizaron, siempre y cuando se presente la correspondiente solicitud antes del 1 de febrero del 2000.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Régimen supletorio.

En lo no previsto en este Decreto en cuanto al procedimiento administrativo, será de aplicación la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Segunda.*– Desarrollo reglamentario.

Se faculta al Consejero de Educación, Universidades e Investigación para adoptar las Disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

*Tercera.*– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Cuarta.*– Recursos.

Contra el presente Decreto, que agota la vía administrativa, las personas interesadas podrán interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, conforme a lo establecido en los artículos 10.1 b) y 46.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 21 de diciembre de 1999.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.